

Behin eta berriz Buruntzaren altzora itzultzeko seta

Martin Anso

Gara, 2000-04-08: 67.

(...)

Hizketan hasi bezain pronto, Martin Ugaldek nabarmen hunkiturik gogorazi zien bertan bildutakoei atzean zuten eraikina berak egin zela, gerroste latzean. "Laborden lana eman zidaten, hori ez zen garai hartan hutsaren hurrengo", esan zuen. Kultur Parkearen proiektua ikusita, pozik agertu zen Ugalde, are gehiago proiektua bere sorterrian bertan. "Buruntzapean", gauzatzen ari dela kontuan izanik. Bere bizitzan lau aldiz itzuli da Andoainera eta, Ugaldek esan zuenez, lau itzulera horien bidez labur daiteke bere biografia. "Gerostean itzuli nintzen lehenengo aldiz, alemaniarrek mugan, Guardia Zibilaren eskuetan, utzi nindutenean. Bigarren aldiz Afrikatik itzuli nintzen, soldadutzan hiru urte galdu ondoren, artean ez letra, ez gizon ez nintzela. Hirugarren aldiz Ameriketatik itzuli nintzen, liburutto batzuk galtzarbean nekartzala, baina isilik egoteko baldintzarekin. Franco hil ondoren itzuli nintzen laugarren aldiz. Laster politika kamutsa alde batera utzi eta euskalgintzako bidean beste lagun batzuekin egin nuen topo. Lagun horietako bi –Martin Ugalde Joxemiel Zumalabe eta Joseba Jakaz ari zen– dagoeneko ez daude gure artean. Bizirik daudenek, berriz, hona ekarri naute gaur".